


8 'gna.

G A Z T E I Z--1936--Otsailla-- 8'gna.
Jakintsiztilariek argitaldua.

# (:) A U R K I B I D E (:)


Aurtitza.- Nora ?.............................1
OLERKI.- Goi-argi.............................4
" " .- Atoz mendira !.......................33
ELERTI.- Eresertí.............................5
" " .- Agurearen ametsa.....................7
ORIZTI.- Zer da edeřa ?.......................8
FISIA.- Atomo-pisia...........................9
LUPIZTI.- Nola sortu ote ziran bizidunak ludian ?.....................11
BIZIZTI.- Mimetismo...........................13
GIZAIZTI.- Pithecantropus erectus.........15
GIZARTIZTI.-Zuzentasuna.....................17
" " .- Jabetza...........................19
ENDAIZTI.- Sendiaren sorkuna................21
EDESTI-AUŘE.- Leen-euskeldunak.............23
UZKURTZ-EDESTI.- "Urtzi"gogaiaren sorkundea......................25
" " .-Leen-euskotařen uzkurtza.27
EDESTI.- Jatsu'tař Mikel....................29
" " .- Araba euskaldun...................31


-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

/":/":/":/":/":/":/":/":/":/":/":/

(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)(:)

# nora?

### Orientación.

Eŕi batean Erlijio-gauzak bestelako gauzen mami-mamian, Erlijio-auziak bestelako auzion mami-mamian egoten dira.

Zenbat eta auzi ok laŕiago, gaitzago, ainbat eta Erlijio-auziekin zer ikusirik geiago.

Erlijio-gauzak eta bestelako gauzak, Erlijio-auziak eta bestelako auziak batean urturik bait´dagoz eŕi baten gogo-lantzean: cultura.

Erlijioa dugu gogo-lantze ortan nagusi. Erlijioa dugu eŕi oŕek ditun asmo guzien zuzentzalle. Erlijioa bait´da asmo oriek azken elbururat—fin supremo—zuzentzen dituna.

Erlijioan kalte=bestelakotan ere kalte.

Erlijioan okeŕ=bestelakotan ere okeŕ.

Gauzak onela, eŕi zintzoa dugu Erlijioa beaŕ dan tokian dauken eŕia: Paketsu etxe-baŕnean, eŕi guzien adixkide, zuzenki doa eŕi ori Yainkoak erakusten dion bidez, Yainkoak yaŕi dion azken-elbururat. Oŕela beaŕ ere.

. . . . . . . . . . . .

Pausa ditzagun orain gure begiok Gazteiz´ko Eliz-Baŕuti ontan:

Berpizten ari zaigu eusko-eŕia. Bidezkoa da berpizte ori: Yainkoak Berak eman dion bizitzarako eskubidea bait´du oñaŕi.

Egiaren egia, egi ta erdi dugu au; alderdikeri guzien gañezka berez dan bezelaxe ezagun dugun egiaren egia.

Eusko-eŕiaren bidezko berpizte ontan, era guzitako auzi laŕiak sortzen dira; eusko-eŕiaren biotz-bilotzean sortutako auzi laŕiak, auzi gaitzak; eusko-eŕiarentzat auzi laŕienak, gaitzenak: Abeŕia. Euskara. Gizarte-Auzia. Iraskintza. Eskubidetza-Derecho. Legetza-Legislación. Banatza-Administración. Yakingaiak, Antzegaiak. Elertia. . . .

. . . . . . . . . . . .

Gure eŕian, beraz, auzi laŕi ok Erlijio

-ausi nagusi bat daramate mami-mamian.Erlijio-ausi nagusi bat bizi da ausi lafi oken barne-muiñan.

Izan ere:eusko-efiaren bidezko berpizte ontan,bego Erlijioa,sendo,beaf dun tokian, eta nai ta nai ez eusko-efia,bera asmo ta guzi, zuzenki doake Erlijioak darakuskion azken elburu-rurat.Erlijioa bedi bestelako asmo guzien zuzentzalle,eta Yainkoaganako bidean dukegu efia.

:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:

Apaizgai gu gaur-egun.Apaiz,Y.l.,bigar. "Apaiza:(XI'gn.Pio'k bere "AD CATHOLICI SACER-"DOTII"idaskian digunez)-Apaiza:MINISTER CHRIS-"TI,areago oraindik,ALTER CHRISTUS...Yainkoa ta "gizonen bitartekoa...gizonetatik artua,bañan "gizonen onerako Yainkozko gauzetan yafia izan "dan gizona.Bizitza ontako ausi lafienak,kora-"pillo askagaitzenak askatuz...okerkeri guziak, "bidegabekeri guziak gaitzetsiz...goimaitasuna "ta pakea zabalduz...intza osasungafia efien pa-"ketzea intzaten dun egiaren irakaslea."

" Naiz goi-gorenekoak iduri ez-ez du "apaizak,iltzen diran gizoneske gauzetan ari "beaf,betikoak diran Yainkozko gauzetan baizik. "Yainkozko gauza ok bait'dira efi guzien asmo-"etan nagusi..." Efi batean,itz batez,Erlijio-gauzen zaintzalle dugu apaiza;Erlijioa,sendo, beaf dan tokian yafi;Erlijioa bestelako asmo guzien zuzentzalle egin:efia,Erlijioaren bidez azken-elbururat,Yainkoaganat eraman:orixe apaiz-goa=misión sacerdotal.

:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:

Apaizgai gu gaur-egun.Apaiz,Y.l.,bigar.Eusko-apaizgai gu gaur-egun.Eusko-apaiz bigar:Eusko-efitik artuak eta eusko-efiaren onerako Yainkozko gauzetan yafiak izango geran eusko-apaizak.Erlijio-gauzen zaintzalle izango gera gure efian.Erlijioa,sendo,beaf dan tokian yafi;Erlijioa bestelako asmo guzien zuzentzalle egin;efia,Erlijioaren bidez,azken elbururat, Yainkoaganat,eraman beaf dukegunok.

Orixe gure apaizgoa.

.........................

Guk zaindu beaf izango ditugun Erlijio-gauzak, ordean, bestelako gauzen mami-mamian dagoz; guk landu beaf izango dugun Erlijio-ausia bestelako ausien barne-maiñan bizi da: REALITER bata bestea gabe aurkitu nai izatea ametsa, amets utsa, aatik.

EZIN dugu, beraz, QUID IMPOSIBILE NOBIS, EZIN dugu eusko-efian gure apaizgoa bete, Endaiztia eta Gogoiztiak darakuskigutena baztertu-rik, Erlijio-ausia bakartu-ta, landu nai ba'dugu; batean-SIMUL-bestelako ausiak landu gabe ari nai ba'dugu Erlijio-ausian. Ametsa, amets utsa.

Gaur-egun, beraz, EUSKO-APAIZGAI garanez. Bigar EUSKO-APAIZ izango garanez:
1-Gure efiko ausi-BAKOITZAREN MAMIZKO-ezagutza bat beaf-beafekoa zaigu; "mamizkoa" bait'da Erlijio-ausiarekin duten alkartzea ere.
2-Gure efiko ausi-BAKOITZA aalbait egokien landu beafean gera, ausi-"bakoitzaren" muin-muiñan Erlijio-zumuak iraun dezan.

Orduan soilki dukegu Erlijioa bestelako gusien zuzentzaille; orduan bakafik yoango zaigu eusko-efia azken-elburura t, Yainkoaganat zuzenki. Orduan bakafik dukegu eusko-efian gure apaizgoa bete-ta.

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

Beti, egun eta beti, gauza ta ausi guziei apaiz-begiz begiratus. Egun eta beti ausi orotan gure apaiz-mallari sendoki eutsiez: gure apaiz-mallan beaf dugu ari izan befi. "Naiz goigorenekoak iduri ere" ez dugu gure apaiz-malletik bestelako malletara yetzi beaf: gure ALTER CHRISTUS izakera garbia zikintzea litzake ori.

Areago oraindik: Gure orain eta geroko buru, biotz eta eskuek--pensar, sentir y actuar--gorputz bakafa beaf dute egin: Kisto Berak bizi dun apaiz-gorputza.

Gure guziak, beraz, gure buru, biotz eta esku--baita KARDABERAZ exkax au ere--ez dira banaka ari, batean baizik; norbaitenak baldin ba'dira, Kisto Berak bizi dun gure apaiz-gorputz onenak dira. Eusko-efia azken-elburura t eramango dun gure apaiz-gorputz onenak.

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

# goi-argi

(FE)

-1-

Arpegi beltza
ume txikiak,
goruntz urduri
begiak.
Mai-Don gañetik
ogi txuriak
berantz maitasun
izpiak

-2-

Ogi-Jainkoa
geldi ta garbi;
izaf edefa
iduri.
Siñesga beltzak
illun arpegi
Aren argitan
igari

-3-

Barne-zalantzez
keska gaixoak;
daf-daf dagie
malkoak-
= Zein zaitut,deika,
zeiñen mintzoak,
señenak onen
begi goxoak...?

-4-

- NI NAIZ,erantzun
ogi-barnetik
abotsak ixil
-ixillik.
¿Ez nauzu ikusten?
Ba-zakusdaz Nik...
!tori,ba,argi au
Neretik !

-5-

-Zu zera,Josu,
maite nauzuna,
ase barneko
utsuna
Lufak dakafen
beasuna
biuf Zuk ardo,
-azti zoruma !

-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-

# Elerti Literatura.

## -!-!- E r e s e r t i -!-!-

Norbaitek, itzaldi sutsu baten bidez, giza-ostaak beren baitatik atera ditula saŕitan entzun oi degu.

Eta ez da ori aŕigaŕia. Nai dutena agintzea naikoa bait'dute oŕelakoetan...

Eresertiak, baña, itzik gabe makiña bat txalo atera izan izan oi digu. Zer dala-ta ordea ? Jun da aŕapa zak !

"Giza-gogoaren muin-oaŕberanetan itzasia dagola dirudi eresertiak--dio Andreuk.

Dana dela, gizartean zer ikusirik badu, beintzat, eresertiak. Eta alaxen da: giza-biotzak nai dan aldera biurtzeko, eresia bezelakorik ez da.

Gogora, bestela, Ipaŕagiŕe. Eŕirik-eŕi ibilli oi zan " Gernika'ko Arbola " abestuaz.

Eta espetxeratu egin beaŕ izan zuten, guda beŕi baten belduŕez.

Eusko-zaletasuna suspertzen bait'zuan ereslari oŕek.

Au da eresertia. Eta ¿Eusko-eresertia ? Lenen, ordea: ereslariak al gera euskotaŕak ?

"Auñamendi'ko tontoŕean dantzan eta abesten dabillen eŕia da eusko-eŕia", zion Voltaire'k.

Bai; guk degu eresirik, iñork izatekotan. Eta ez nolanaikoak ere.

Eusko-eresertiaren edertasunak, ezin ditekez aztertu.

Beroien aldeko ziñispiderik ermoena, atzeŕian eta gai ontan jakitunen diranen artean, saritu dizkioten andespenak dira, noski.

Galantik artu du. Itzez batzuetan;
geienetan egitez. Europa eta Amerika'etako
leku ugaritan eresi xamuŕ-xamuŕak nai ditus-
tenian, gure abestiak dabilzkite.

Ez bait'dute beste orek gureen go-
xotasunik. Eresertilari jakintsuen eta ospatsu-
enak askotan esan izan digutenez, Europa'ko
eŕi-eresietan ez dago eusko-eresia bezin edeŕ-
ik.

Levinson dantzalariak, Bilbo'ko "Cam-
pos Elíseos"en gure ezpata-dantza ikusi zun.
Eta gau ori baño atsegingaŕiagorik ez zuala
egundo igaro zion Paris'era itzuli zanean.

Eta Diaghilev'o'k Eŕusi'ko dantzen
zuzendari aipatuak, beŕiz, ez zuela azeŕ bere sor-
tetan, Bizkai'ko ezpata-dantza bezin edeŕ eta
kemantsurik.

Eta edertasun oiek jakintsuak be-
kaŕik ez dituzte somatzen. Eŕitaŕei ere edeŕ
deritzaizkie.

Gogora, bestela, Barza'ko "Liceo"an-
tzeztokian "Amaia" eres-antzertiak egin zuan on-
dorea. Eta egun beraan Eusko-Abesbatzak Barza'n,
eta Donostiaŕ-Abes-Batza'k Madrid'en egin zute-
na, eta abar...

Au da gure eresertia, eusko-ereser-
tia. Nolanai ere bikaña. Eres-edeŕ-zaleak ba'
gera, eusko-eresarti-zaleak beaŕ degu.

Ba-degu, baña, zaletasun oŕen alde
beste zergatirik. Eusko-eŕi-abestia, abenda o-
juta zaigu --dio Donosti Aba'k, eta ezin iñola soŕ-
goŕ iraun."

Bai, gure arbasoak utzi ziguten on-
dokoa degu. Euskera bezelaxe mendi galluŕetan
gordea. Biak, baña, antziñako beren lekuetara i-
tzul beaŕean dira.

# agurearen ametza

Udazken-illunabaŕ goŕia.Gordetzen ari da eguzkia.Muño-muñoan,baso beltzak esker eta eskubian,baseŕi txukun bat ageri da.

Makillaren aŕimuan,agure buru txuri,arpegâ ximuŕ bat ate-auŕean exerita.

"Joan aiz i ere gaurko egun ori....Nola ote dabiltza nere semeak.?."

-.-.-.-.-.-.-.-.-.-

Lo dago agure xaaŕa.Lo gozorik ez baña. Daŕ-daŕ gorputz guztia...Biuŕi-antzean begiak.

" Zazpi seme nituan.Zazpiak edeŕak.Zazpiak atarian saŕitan jostari.Jainkoa ta elkarganako maitea zuten buru gañetan koroi;Euskera goxoa soñeko;oitura garbiak edergallu.Ikusgaŕiak benetan...Joan ziran...Nola ote dabiltza..?Bizkai,Gipuzkoa,Araba,Napaŕoa,Benapaŕa, Lapurdi,Zuberoa...Zazpi seme nituan...Zazpiak edeŕak..."

-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-

Udabeŕi-goizabar argia.Agertzen ari da eguzkia.Baso-beltzaz,zazpi bidez,zazpi anai gorantz.

—"" Agur,semeok!!!Garbi zatozte ?...Zikindu egin aute,Araba 'gaixo...

—"" Negaŕik ez; Euskera galdu dek,guk beŕiro emango;beti elkaŕ maitatuko !

—"" I ere Napaŕoa ?

—"" Ni ere beti euskaldun izango.

—"" Anaikiro bizirik,maitatu,semeok,Jainkoa;maitatu euskera.

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

Zazpi seme nituan,zazpiak edeŕak.Jainkoa ta elkarganako maitea zuten buru gañetan koroi;Euskera goxoa soñeko;oitura garbiak edergallu...Etoŕi ziran...

Zazpiak atarian maiteki jostari...

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

# Orizti

Ontología.

## ¿ Zer da edeŕa ?

Apaiztegia auŕez-auŕe ikusten dezunean, edeŕa dala diozu. Lenen etxea ikusi, atsegin izan gero eta beraren edeŕa daitorzu azkenik.

Ez dizu apaizgaitearen edeŕa aitoŕ-erazi bera ikusteak, zure baitako atsegin-kilimak baizik. Atsegin ditugum gauzak dira, beraz, edeŕak.

Obeto baña zeindu leikela deritzait. Atsegin ditugun gauzak aztertzea onena ortarako.

Guazen apaiztegira. Osoa da; osoa ez ba'litz ez genduke iñola ere atsegin. Gaikiak ondo eratuak daude gañera. Ez litzake bestela gure baitan atsegiñik. Besoak bulaŕean eta belaŕiak kopetari erantsita leramatzin gizona atsegin ote?

Era berean etxe ontako gaikiak naasirik ikusiko ba'genituzke ez litzaizkiguke edeŕ, itsusi baño. Osotasun eta eraz gañera, ba-da besterik ere. Gauza bateri, naiz osoa ta eratua izan, illun agertzen ba'zaigu, ez diogu edeŕ-izenik jaŕiko: Argia ere nai ta naiezkoa, beraz.

Oŕa or, bada, gauza batek edeŕ izaŕeko beaŕ ditun baldintzak. Agustin Doneak ondo baño obeto zekitzin baldintz auek, edeŕa "eraren dirdira" zala esan zuanean. Edeŕ mamia azaldu degunez gero, edeŕ ezagutzari buruz zerbait esatea litzake egokien.

Adimen-baratzako landara da edeŕa. Adimenak bakaŕik ezagutzen du beaŕ bezela edeŕa. Begira: Edeŕ mamia sentzumen bidez ezagutuko ba'litz, gizonak ezik, abereak ere izango lukete edeŕ ezagutzea. Gureak bezelakoxeak bait'dira euren sentzumenak. Ez det uste, ordea, oŕenbesteraño irixten diranik. Jateko gai ez diran loreai jaramon gutxi, edeŕak izan aŕen ere. Aoa goxatzeko bide diran loreai beŕin, burua makuŕ. Ez, ordea, loraren edeŕa obeto ikusteko, ortz artean txikitzeko baizik.

Era nai ta naiezkoa dala esan det gañera. Era, ikugaitz danez, adimenak bakaŕik ezagutu dezake.

-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-

# Pisia

Física.

## -.-.- Atomo-pisia -.-.-

Jakintza befi bat sortu zaigu,oraindik orain,esateko:Atomo-pisia.Befia esan al det..? Leukipos,Demokritos,Platon:ofa antzin-antziñetako gizonak.Gauza guztiak atomoz egiñak dirala aspaldi asko egitzat emana dute.Ta ala ere jakintz befi bat azaldu zaigula diot.

Ala da,izan ere.Röntgen (1845-1923),pisillari doxtef jakintsuak,X dirdirak idoro zituen arte,Atomo-pisia etzan jakintza,uzteri bat baizik:batzuek atomo guztiak berdiñak dirala; bestetzuek ezetz;erdibikaitzak dirala beintzat, eta abar...

Orain den egunez,ordea,len-aldian,azterbide ontxeak ditugu,ta atomo arloan gero ta mundu befiagoa darakuskigute azterbide oiek;atomoa erdibikaitza etsi izan da lenetan;orain badakigu atomoa erdibikaitza ez ezik,geienean ale-pilla aundia oi dala:ale-pilla ofetan,befi: eten-gabeko drixka darabiltela aleak,batera ta bestera...

Aizu,aizu! Zer degu,ordea atomo ori..? ---Atomoa,azken-alea,"gorputz-azken-alea" dezu. ---Afaioa,ta ori zer da?--Begira:Gozoki edo azukra-kozkof bat erdibitzen badegu,erdibitu azkero ere,zati bakoitza azukre da;zati ori autsu dezagun,eta auts-ale bakoitzak oraindik azukre dirau;auts-ale oiek ere zatitu,zati auek ere zatitze,ta...jafai zatitzeari:zati oiek guztiak erdibitu-ala erdibitu,beti azukre izango ote dira ?

Ez;noizpait arkituko degu azken-alea; obeto esana:azukre-azken-alea;ale au oraindik ere azukre da;befiz erdibitzeñba'dezu,ordea, zati bakoitza iñola ez ditake azukre izan:ofetxegatik esan det"azukra-azken-alea".

Gorputz-baten atomoa,beraz,gorputz ofekiko azken-ale bat da;berez,ordea,len ere esan

degu-ta,ale akok osatzen dute atomoa.

Atomo baten aleak bi eratakoak oi-dira:erdi-alea (núc eo) ta inguru aleak:auek,erdi-alea inguratuaz,biraka dabiltz.Atomo ta atomo-aleak, gañera,beñere ez dute batak bestea ikutzen;indaŕez eusten diote alkaŕi,eguzkiak eta izarbelak bezelatsu.

--Dana dala,aleak atomo baŕuan toki geyegirik ez dute izango ta,uts-eginda ba'da ere, noizbeinka beintzat,alkaŕ ikututzen dirala deriskiot.

--Ez dago beldúŕik.Atomoa txikia da;ori bai oso txikia:zerba-azi bat atomo baten onduan, ludi osoa naranja baten onduan bezelakoxea omen da.

Irudimen-argi makalez ikusteko,txikitxoak ditugu atomoak.Aunditu ditzagun,beraz,irudimen-ealez.Iruditu dezagun erdi-alea ludia bezin aundi.Erdi-alea ainbestekoa dala,atomoa osoa zenbatekoa ote litzake? Ta inguru-aleak zeñen uŕuti lebilzkioke biraka? Entzun:Erdi-alea oŕen aundi ba'litz,ale aldenduena emendik 152.640.000. km.tara ibilliko litzake biraka:eguzkia baño bi milloi kilom tro ŕutiago.Debye,pisilari pantzetaŕen kontuetatik ori ateratzen degu beintzat.Ain toki estua ote dute atomoak alkaŕ jotzeko ? Ez dago beldúŕik.

Atomoak ikusterik ez degu.Zearka bezela ezagutu beaŕ.Ta ala ere Atomo-pisiak,egunean-egunean ustegabeko auŕerapenak dakarzkigu.Palacios'taŕ Jule'k dionez,asteoro asteoro izaten omen da idorokuntz beŕiren bat

Izotz eta elurpetan azi-eziñik egon dan landaretxoa,euri goxoagaz eta eudabeŕiko eguzkiaren zartadaz,bi egun baŕu,sendo ta kementsu azi oi da.Atomo-pisiari irudi orixe dagokio gaur dan egunez.

Ortan eusten ba'dio,ez beldurtu:laixter gera gutxien uste ditugun auŕerapenetan: Atomo-pisiaren atal bat auxe da:"Ale-aldat ze" edo "trnsmutación de elementos".Onen bidez aŕigaŕizko gai-biurtzeak egiten dira,gorputz batez beste bat egiñaz t.a. Uŕengoan azalduko.

-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-

# Lutizti

Geologia.

-.-.- Nola sortu ote ziran bizidunak ludian?

Lutiztiak erakusten duanez, ludi au eguzkiari galdutako puska bat da. Aldi baten, eguzkia bezin gori ta bero zegon. Izotzaz gañetiko millaka mallako beroa zuan eguzkiarengandik aldendu berian. Lurak oraindik bere baitan duan berotasuna garai artako bero izugarriaren aztarna garbitzat jotzen da.

Aldi luzeen buruan, bero ori gutxituaz joan zan, oraingo giroraño eldu arte gutxi gora bera; eta ludia bizidunak bear dituzten baldintzatan jarri zanean, sortu ziran bizidun izakiak: landare, abere ta gizonak.

Nork ota nola sortu ote zituan bizidunak ludi azalean ? Zein izan ote lenengo bizidunen egille ? Galdera oneri etzaio erantzun berdiñik eman.

Gaikeri-zaleen iritzia, bizia izadi-indarren semea da. Izadiko indarak bear diran baldintzatan eraturik, bizidunak sortzeko lain bai omen dira. Uste onek, baña, ez du oñarri sendorik.

Izadia zeatz aztertu ta begiratuaren, gaiaren indarez bakarik bizidun izaki txikienik ere sortu danik ez bait'da ikusi. Garai baten barak eta beste olako xomoro txiki asko berez sortzen zirala uste zan; amaseigaren gizaldian, orde, Harwey jakintsuak eta Pasteur argiak geroago, uste ori gezurezkoa zala garbi agertu zuten ez dala bizidun txikienik ere sortzen arautzatik edo beste bizidun batengandik izan ezik.

Gaurko jakintzak eta ikasketak agertzen dutenez, bizia sortzeko indarik ez du orain gaiak, eta lenago ba-zuala esateko arazoirik ere ez da, beraz.

Biziaren soferari buruz, gaikeri-zaleen iritzia ez diteke gaur jakintza-bafutian aldeztu, egintza bat ere bere alde ez du ta.

Biziaren sofera azaltzeko, bada beste iritzi bat ere. Iritzi onek era onetara azaltzen du auzia:

Gaiak bizia sortzeko indafik ez duan ezkero, gai utsa baño geiago dan norbaitek sortu ditu bizidunak.

Ludiaren otz-beroen gañetik eta izadiaren goraberak baño lenago ba-zan norbaitek egiñak beaf dute nai ta nai ez bizidunak.

Lutizti jakintzan oraingo jasokunak damaten argiz begiratzen zaie antziñako gertakizunei; eta gaur bizidunak beste bizidun batengandik bakafik datozela ikusten ba'degu, lenengo bizidunei ere beste bizidun batek izatea eman ziela uste izatea bidezkoen deritzaigu.

Lnen-Bizidun ofek berez beaf zuan bizia; bestela, bein ere amaitu gabe: "in infinitum" aufera eta aufera joko genduke. Bein edo bein, orde, nai ta nai ez muga bat jo beafean gera.

Guretzat lenen-Bizidun ori Jainkoa da; Bizidun onengandik datoz beste bizidun oro. Onek eman bait'dio bizia.

Ez nola nai eman ere, ez gaur bizidunak beste bizidunei (guraso batek bere semeari) damaien bezela; Jainkoak bere neŕfi gabeko almenarekin gauza oro ezerezatik atera bait' zituan.

Ez du, beraz, gaiak bizia sortu, Lenen-Bizidunak baizik.

# Bizizti

Biología.

## ....—— Mimetismo ——....

Ikusgaŕirik asko dakusagu Izadi zabalean. Argi ta aizearen sorginkeriatatik asi ta luŕean aŕastaka dabiltzan zomoŕoetarañoko guztietan amaika bai.

Oietako bat euskeraz ageŕ naiean natorkizu: Mimetismoa.

Zer da, baña, mimetismoa ? Zomoŕo, txori, pizti ta mitxeletak beste gauza batzuekin duten antzari deitzen diogu mimetismo. Ezaŕ-lekuaren antza izan oi dute batez ere.

Ba-da akeitaren margo iduriko mitxeleta mota bat. Akeita-oŕiaren gain ezartzen danean, oŕi bat bait'litz agertzen da. Oŕi-zaintzuri, kider, eta zomoŕoen ixumuŕak utzitako aztarnak ere argi-argi.

Armiarma zuriak lore zuria du maite. Armiarma goŕiak lore goŕian du atseden. Armiarma berdeak zelaia du atsegin. Adimenak bultzatuta dabiltzala dirudi. Oŕa or mimetismo bi.

Zer dala-ta oŕela jokatzen dute pizti, txori, zomoŕo ta mitxeletak ? Galdera oneri ez diote guztiak erantzun berdiña eman.

"Transformisten" iritziz, eiztariari edo arerioari iges-egiteko. Lore zuri gañeañ ezartzen dan armiarma zuria berexkatzea zail bait'zaio areriari.

Bizia gorde ta lasai bizitzeaŕen egin oi dute, beraz, gizon oiek diotenez.

Egia ote da, gero, au ? Batzuetan gerta leike ori; beste askotan, ordea, lasai egon ez ezik, galera letorkieke.

Begira; Ba-da mozolo itxura artzen duan mitxeleta mota bat.

" Transformista " baten aburuz, mitxeletak bere burua zaitzeafen egiten omen du.

Guk dakigunez, ordea, mozoluari izugafizko guda egin oi diote egunez txoriak.

Ez ditu, beraz, mitxeletak mozolo jantzia artuta txoriak ayenatuko, beregana tu baño.

" Transformisten " iritzia egizkoa ba'litz, gañera, arerio gogofenari arpegi emateko zerbait izan beaf lukete biziztun oiek.

Eta ez da olakorik. Galeperak lur gañean daudenean erbotza urbil, eizteriak ikusi ez afen are; txakufaren sudufak somatzen bait'du.

Bizia gordetzeko egiten dutela esango dute gero.

Jainko guzialdunak bakafik daki oien zergatia.

Gaur dab egunez aoa zabalik gelditu beafko dugu.

Beste gertaera edefik aipatuko nizuke, baño gaurkoz naikoa egin dugula deritzait.

-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-

&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&

&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&_&

-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-.-

# Gizaizti

Antropología.

-:-:- Pithecantrophus erectus -:-:-

Agur, irakurle ! Lengo gai berakin natorkizu. Ontan gelditu bait'giñan. Ez izan nai, ba, nekagafi, oraindik idaz-lan onetan asi-befiak gera ta... Ya ba, alkafen laguntzakin gallufari eltzen diogun.

"Pithecantropus erectus" dalako ori zer ote da ? Izenez beintzat ez da nolanaikoa... Izenez olakoa dana berez nolakoa ote da.

1891'gn. urtean Dubois'ek buru-zapai bat, istaf ezuf bat eta iru ortz billatu situan Java ugartean. Bi edo iru ezuf auekin bereala moldatu zuan, bere ustez, gizonezkoa,

Izena, befiz, Pithecantropus. A zer noleko gizonezkoa iru ezufekin tajututakoa !

Haeckel igafleak (?) oraintxe baño urte batzuek lenago esanik zeukan: oraindik agertuko da, bai, gizona ta abereak elkartzen dituan izakia; izaki au itz-gabekoa izango da...

Ezin Israel'go igarle berak ere onen garbi etorkizuna azaldu.

Dubois Haeckel'en jafaille sutsu bat zan. Afen esanen eta egiñen befi ondo zekian. Dubois'ek ezufak billatu situan bezin laixter, Haeckel'ek esandakoa erdiz-erdi bete zala uste izan zuan.

Hackel'en etsai guztiak ezuf auekin ankaz gora bota beáf zituala ta...Europa alderuntz jo zuan, bere biotzak bitartean kolkotik irtengo ote zion beldufez.

"Ta orain zer izen jafiko diot nik? Hackel illezkofak esandakoa egoki. Afek "Pithecantropus allalus" : itz-gabekoa, ezafi zion. Buru-zapai onek agertzen duanez, ordea, izaki au itz-duna zan. Orain ¿Zer egin? Dana dala

itz-dun eta itz-gabeak alde batera utzi ta "tente dabillena" deituko diot:erectus.

1892'gn. urtean Jakintz-Batzar-Nagusi bat eratu zuten Moscou'n.Batzaŕ ortan ezur oien baŕi eman zuan Dubois'ek.Ya ezur aiek toki batean arkitu zituan galdetu zion bazkide batek."Ezetz,erantzun bezteak;ez,ordea,ain uŕuti ere.Amabost metro baŕuan"

Amaboat metro ok ezer esan nai ez ba'lukete bezela.Batenak izateko baño ez izateko aŕazoi geiago deritzaigu,ba.

Wirkow jakintsuak esana ez aztu,beintzat"Ezuŕ aiek batenak diranik ez diteke azaldu;eta gorputz oso bat bada ere,azldu arte ez da gauza aintzakotzat artu beaŕ."

Iru edo lau ezuŕ arkitu dituala ta,bidezko al zaio iñori orain arte ezagutzen etzan enda baŕi bateri zoŕ zaizkiola esateko ?

Ezuŕ oiek arkitu ziran luŕak laugaŕen arokoak dirala jakin degu aŕezkero.Ez al dakigu,ba, Edesti-auŕearen bidez laugaŕen aroan gizona ba-zala ? Gaurkoa bezin gizon izan ere.

Nola izan orduan garai artako gizonaren guraso ? Lenago adimen aztaŕenik etzeukanak nola egun batetik bestera adimena artu ?

Azkenean zer egingo ta "Pithecantropus erectus"en irudia azldu ez digute ba?Orain garai artako eŕatratista batek atera zuala esatea palta bakaŕik.!

Auek alde batera utzita,jakintzak dasaigunari jaŕai dezaiogun.Arnoldo Brass'en iritziz: :ezuŕ auek gureak bezelakoxeak dira,gizonezkoenak,alegia,naiz ta ezur oŕo gizon batenak ez izan aŕen.Ez,beraz,gizonaren auŕekoa.

Garai artako gizona beoŕen antzekoa izan beaŕ zuan nunbait,aldaketa-zaleen iritzis.

Ala izango ote? Bai zera! Aztertu Cheles-auŕeko aztaŕanak:garai artako aŕizko aizkora,pikotz,kaŕakaillu,aisto,zulakaitz t.a.

Gizona adimendun dakusgu bere lan auetan.Gizon adimendun zan,beraz,aro artan ere.

Pitecantropus erectus=



-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

# Gizartizti

Sociología.

## Zuzentasuna

Gizona alkartuta bizi da. Ez dago, baña, indafez alkartzera beartuŕik. Izatez bait dago batzera makurtua.

Gogozko alkartasuna egiten dabe, batez be, gizonak. Alkafenganako doguzan eskubide ta eginbeaŕak diralarik lokaŕiak.

Eskubide ok ez dira gizon eta eŕiek, jostalluak egiten diran bezela egiñak. Gizonen eta eŕien kasketaldiak asetzea baño eginbeaŕ andiagoak dabez.

Eskubide neuŕia zuzentasuna (justicia) da; eta ezelan be ez gizonen eta eŕien naikeriak. Ortik antxiñatiko esakunt̃a sura: Jus est quia justum.

Zuzentasuna diñogunean, Jaungoiko-zale ta uritaŕ (civis) zintzo egiten gauzen ekandun askoren batza adierazo gura izaten dogu.

Askotan, baña, beste ikuŕ berezi bategaz azaltzen yaku. Doipuruak, Q.A. idazkian ikuŕ berekoi bat damotzo. Ikuŕ berezia baita gure baseŕitaŕak "Bakoitzari berea", esakuntzan.

Bakoitzari berea emon eta geideaaren eskubideai itzal izatea da zuzentasuna.

Ordain-zuzentza (conmutativa) izenez be ezagutzen da eta onek bakoitzari berea, itunbenetan (contrato) zeinduta dagonez ordaintzea agintzen dau. Kaltegillea (infractor) bidezko ordaña biŕ-emotera beartu daroa.

Gizon bakoitza gizarte soñaren atal bezela da. Oneik soñarekiko lez, gizon bakoitzak gizartearenganako eginbeaŕak dauz eta ostez gizarteak bakoitzarenganako.

Gizarteak bakoitzarenganako dauzan egin-beaŕak arautzeko banatze-zuzentza (distributiva) ipinten da. Gizon bakoitzari sal eta merezi dauanez saria banatzea agintzen dau.

Eta azkenez gizartearen zoriona da gizarte zuzentzaren (social) elburu berezia. Yaurlariei agintzen dautse batez be. Legeak egin epaitu eta zigorkatu beti guztien zorionari begirake egin beaf bait'dira. Gero menpeko danai: bakoitzak dagiyen gustia gizartearen zorionera zusendu erazoz.

Arau ok austea zuzenbagekeria egitea da. Gaur egunean gaizkilleak zigorkatzeko baño, gaizkillerik sortu ez dedin ardura geyago erakusten dabe yaurlariak. Naspilla eta sesioa nagusi diran gizaldi ontan be, argi apur bat azaltzen da ofatiño.

SOR-ERA.-Aufean aitatu dogun gogozko bizitzak, berez dakafen kimua bezela da zuzentasuna. Adafetik askatzen dan kimua igartu egiten da. Zuzentasunari be gogozko zilladin (moral) bizi ortatik yatorko bere bizi gustia. Zilleitasuna (moralidad) eta zuzentasuna, be, gauz banatu eziñak dira.

On egin eta txaf ez egitea agintzen dauan legea, gizadiaren barnean tinkatua dago. Berezkoa da baita gizonaren gogoak "zorion osoa" iritxiteko dauan barne miña be. Egafi ori Ontasun gurena danak bakafik ase lagioke.

Beraz, gauza bi oneik azaltzen yakuz:

1- Gizonaren izakera: zillei-legea (norma honestatis) izatez beregan daualarik.

2-Jaungoikoa: lege ofen iturburu eta azkenengo oñafia. Berau bait'da "giza-izakeraren" eta irazaki guztien Egille eta Eredu (causa exemplaris) bakafa.

Beraz: Zillei-legearen sorburua Jaungoikoa izanik, zuzentasunarena be Jaungoikoa izango da: eta ez giza-batzaren auferapenak eta abar...

. . . . . . . . . . . . . .

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&

# Jabetza

Zerbaiten jabe izateko eskubidea, geure gizatasunetik datorku. Zerbaiten jabe izateko bere elburuak agintzen dautso gizonari.

Gizonak bizi egin biaf dau; gizona ugaritu ta osoagotu(perfeccionarse)egin biaf dau.

Elburu au betetzeko biaf dabena, biaf-biafekua dau gizonak. Eskubide au geure izatearen jafaipen bat baño ez da.

Akina'taf Toma daunak diñuanez, gizon bakoitzari bere osotasunerako biaf daben guztia zor yako.

Ez da, bañan, gizona osotasunera elduko, bere almen guztiak ezitzen ezpa daus. ¿Zelan ezi, bañan, askatasunik ezpa dau; beti egunerokua zelan irabazi asmau eziñik ba'dabil?

Osotasun ortara altzeko, ba, beaf-beafekua dau gizonak zerbaiten jabe izatea. Ezin bait'dauz, beatela, almen guztiak azi. Eskubide ori, gañera, ... ogasun batzuen jabe izateko eskubide ori, izadiak damotso gizonari.

Gizon eta abere artean alde aundia dago. Aberetasuna osorik dauka gizonak. Abere danez, beste abere guztien eskubideak daukoz. Ez dau, baña, aberetasunak gizona osotzen.

Gizonari gizatasuna beste gauza batek damotso: adimenak.

Gogoa ta gorputza dira gizonaren osokiak Gorputzak, jakiña..., janarija, janzkijak eta abar eskatzen daus bizitzeko.

Bizitzeko eskubidea daukan gizon bateri gauz onek ukatzia ¿Zer litzake? Ez Jainkoaren legea beñepein. Gizonak bizitzeko ta bere almenak ezitzeko biaf dabezan gauza guztiak eukitzeko eskubide berezkua dau. Jainko berak damotso. Eskubide ori ukatzia Jainkoaren eta gizonaren aurka juatia litzake.

Ez ete onetan obenik ?

Gizon izateak, bañan, geijago eskatzen dau. Ezin dau biaf-biafekuagaz bakafik gelditu. Zerbait geijago biaf dau.

Abereak ez dau gerako gauzarik ikusten. Gizonak bai; adimena bait'dau. Adimena-lagun gauza asko ikusten daus: oraingauak baita gerokuak be.

Bere buruaren jabe dalarik, gaur ta bijar bear dabezan gauzak artzeko eskubidea dau. Ez bakarik, orduan, 13'gn. Lon'ek diñuanez, lurak damotsorena baita lur beraren jabe izatera be eldu biar da; au da: erabilliaz amaitzen eztiran gauzen jabe izatera.

Lasaitasun apur bat barik ezin dau adimendun lez gizona bizi. Egunerokua zelan irabazi ta irabazten dabena kenduko ete dautzen bildurez be'dabil, ezta lasai biziko; ezta bizitzaren osotasunera elduko be. Ez litzake, ba, adimendunaren bizitza au.

Ikus dagigun, baña, oraindik argijago eskubida au. Auzi onetan eztotzago iñoiz be gizon bakarari begiratu biar.

Gizonak, geijetatan beintzat, sendia sandu biar dau. 13'gn. Lon'ek diñuanez: "gizonak beren semien biartasunei begiratu biar dautse; bere izatearen jarraipenak dira ta. Aitak semiak ondo bizitzeko biar dabezan ogasunak batzeko biarkuna dau. Eztau, baña, biarkan au beteko irabazten ezpa dau; ta irabaziak jarauntziz (en herencia) ondorengoei izten ezpa deutsez."

11'gn. Pi Doipuruak be auxe berau diño: "Gizonak zerbaiten jabe izateko ta ondorengoei jarauntsiz izteko daukan eskubidea bere eroetan beintzat osorik eta ikutu barik jabon biar da."

Gizarteko agintariak be ezin dabe eskubide ori kendu; gizartea baño lenagokoak diran gizon eta sendi bakoitzaren erayetan sortua da ta. Gizarte osuaren onerako neurira akari bai; eskubidea kendu ezelan bez.

Naikoa da, irakurla. Lantxo onek ez eutzun gauza barririk erakutsiko. Zure biotzean, baña, Doipuruen irakaskintzak irakurri ta ikasteko zaletasuna sortu ba'dau, pozik nago.

/"!/"!/"!/"!-:-:-:-:-:-:-:-:/"!/"!/"!/"!/

# Endaizti

Etnología.

## :-: Sendiaren sorkuna :-:

Agur, irakurle. Sendiaren sorkuna dot gaurkoan jardungai.

Iritxi bardingerik ba- da baroni buruz. Amaika asteKari esanak ba-dira sendiaren sorkuna dala-ta.

Basati-talde edo"horda" dalukoz dauke batzuk sendiaren iturburutzat. Basati-talde ori endakatuz gero sortue sendia, euren ustez.

Basati-talde bat besterik ezegoan.

Iñoenes gizadi-asieran etzan sendirik. Abere aren bizi oi ziran. Idekoak gizon eta emakume. Guztiak guztientzako.

Umiak, baña, amaren albora jo oi eben bati; bizikera artan aita baño ama azagutzea eŕazagoazan nunbait. Oŕa sortuta sendirako nalla bat: "matriarcado" deritxona.

Ordurartekoan Lateŕiaren gain egoan gizartearen aziera ta irakaspena, eta Lateŕiaren zoriona ta osasuna besterik ez eban nai guztiak.

Urtiak saeŕ, baña, gizonen berekoitasuna jaŕi zan gizarte guztiaren onura-gain, eta onela sortu zan "patriarcado" edo egizko sendia. Leen gizonen berekoitasuna da, beraz, sendiaren sorkuna. Basati-talde ta "matriarcado" deritxona endakatuz-gero sortua da sendia.

Lateŕiaren gain egozan egin-beaŕ eta eskubide guztiak (azi-era, irakaspen t.a.) soŕtuaz batera bereganatu ebazan sendiak eta eskubide oŕeik beregain arturik Lateŕia eriotz-bidean jaŕi eban.

Bidebakokeria aure!!! Sendiak eztauko eskubide oŕeekin zer ikusirik eta Lateŕiarenak direnez gero, kendu egin beaŕ yakoz nai ta nai ez.

Lateŕiak izan beaŕ dan eskubide oŕen
jabe, bereak bait ditu. Ta Lateŕiaren gimpera-
tzaille bat baño eztalarik ondatu egin beaŕ
da sendia.

Umiak, be, gizartekoak dira, gizarteko
egikizun batzuk bete baŕian dira, gizarteari
lagundu beaŕian izango dira, ta oŕetarako azi-
era berezia beaŕ, eta Lateŕiak baño zeñek o-
beto bete agin-beaŕ au ?

Umien azi-era eta irakaspena, beraz,
Lateŕiari yagoko bakaŕik. Gurasoak eztauke zer
ikusirik; gurasoen es uetan be legoz, ez leu-
kie azi-era berezia izango, bai beaŕ bada La-
teŕiaren aurkakoa ta... ori ezta bidezkoa.

Lateŕia gizartearen nagosi

Oŕa or sendiari buruzko Morgam'en us-
taria (teoria). Egizkoa ete ?

Ziñeste oietakoak izan dira asko Ur-
tiotako jakinta-auŕerapenak, baña besterik di-
ñoskc.

Jo daigun aintziñeko eŕietara; lean gi-
zonen bizi-era eŕi onek erakutsiko bait daus-
kue ondoren.

Sendiak ba-dira eŕi oneetan eta gi-
zonek emazte bat eta emakumeak senar bat
besterik ez dabe. Sendia baeati-talde oŕeta-
tik sortua danik ezin leike, beraz aldeztu.

Jakintzaren auŕez-auŕe jartzia litza-
ke ori. Aitatutako eŕi oneetan, gañera, eztago
Lateŕirik eta Lateŕirik eztagonez gero, eze-
lan, be, ezin sortu sendia Lateŕiari ostutako
eskubideak bide.

Lateŕiaren eriotza ez da, beraz, sendi-
aren sorkuna. Lateŕia baño azer lenagokoa
dogu sendia. Sendiak bakaŕiem ezin nunbait
beaŕizan batzuri auŕ-emon eta utsune ori be-
tetzeko sortua da Lateŕia.

Eztauke, beraz, sendiari kenduta umiak
bereganatuteko eskubiderik.

# Edesti-aurre

Prehistoria.

## :-: Esen-euskeldunak :-:

Jakintsuen buruaustea da euskeldunen sorkuna. Eskutus josita dakusgu. Lenengos lur̃alde oneitara noz etor̃i siranók eztakigu. Nundik be ez. Abendas zaar̃-zaar̃ak garela dakigu bakar̃ik.

Euskelduna gendun emen nagusi Joau-Kisto baño askoz lenago aldietan. Geroztiko-Paleolitos-aroan beintzat emen ziran.

Orduazkeroztik gaurdaño eten barik bizi izan da lur-zati ontan eusko abenda. Auxe diñosku, beñepein, Arkeolojiak.

Gogo-lantza oso berezi ta bakar̃a eben orduko euskotar̃ak. Geroagoko aroetan, be, zutunik iraun eban berezitasun onek.

Au dala-ta, beste er̃imaltzoen artean oso er̃ez nabarmendu izan jaku euskelduna.

Toki baten etziran egoten luzaro. Ar̃antzale ta ciztariak bait'ziran, ar̃ei ta eiza nun ta arexe aldatu biar̃. Artzaintza ta lugintza ez ebezan ezagun oraindik.

Orduko abere-mota ta gizonen bizi-tokiak diñoskuenez, eguraldi oso otza gendun aro artan. Aitz-zulo bar̃u ta eskutuetan bizi biar̃; geroztik, er̃eka ta ibai ertzetan geijenez.

Ba-daurkikegus aldi ontako giza-eztarnik asko gure mendi batzuetan.

Ez genduzan atzenengoak gure arbasoak ar̃i eta azur̃ak lantzen. Ezta erti-lanetan, be. Ikusgar̃iak dira gero itxi euskuezan mar̃ezlanak.

Ar̃ietan mar̃eztuten eben. Abere-irudiak geijenez. Gizonik ezta agertu inoz be garbi mar̃eztuta.

Alargo ta eztenez egiñikoak dogus mar̃ezlan ikusgar̃ienak.

Mafezlanok toki bafu ta eldugaitzetan aurkitu izan dira. Au dala-ta, gizon arek ez eban mafeztuten bizitokia apaindu edo kanpoko jentiai erakustearen, beste zirika batzuek eragingja baño. Uskurtz-zirikak oyez.

Paleolitos-aroaren azkenerunta, epaldu egin zan eguraztia. Ondorango onik ez eban ekafi aldatzc onek euskeldunentzako.

Ab..s-mota asko galdu egin bait'ziran, gizona jatekorik ez eta gofiak ikusten asi zan.

Bizibide eatu ta lafi ontan bizi izan ziran luzez. Ain guri egoan gogo-lantzeak, be, luf jo eban onderen.

Beste bizibide bateri eldu biafien ziran.

Lufalde menditsuetan artzaintzari emon eutsoen. Lanetan, bafis, nekazaritzari edo.

Auke da gizonak ordùan egiñiko aldatze ..rgafia.

Bizibide bafiari egokiozan langaiak egiten asi ziran. Atxufak, laiak eta, ordukoak dogus eiki.

Erbestetik, be, ugari joakezan. Eta ofeia edertuz jojan, bafis be, euskeldunen gogo-lantzea.

Zer esanik asko ba-da oraindik: gaurkoz, baña, agur dagitzut, irakurle.

# Uzkurtz-edesti

-:-:- "Urtzi" gogaiaren sorkundea -:-:-

"Urtzia" degu, aurreko lantxoan genionez, uzkurtzaren ardatz eta oñarri. Gogai aundi au, ez da, noski, gibel-urdiñak basoan antzo, berez eta bat-batean sortuak; zergatiren bat arrazoiren bat ba-zukean gizonak gogai ori sortzean.

Zergati ori zein ote? Garrantzi aundia dizu, irakurle, auzi onek. Gauza bat askotzat edo gutxitzat jotzeko, izan ere, gauza orren sorkunde zergatiari begiratzen diogu.

Onelako edo alako gauza jokurako sortua izan ba'da, jokurako balioko du; jateko sortua ba'da, berriz, jateko, t.a.

Urteak zear egite ortarako bide egokiagoa arkitzean au artu ta bestea utzi egiten degu. Antziñan (ez oso) etxeak argitzeko krisalluak erabiltzen zituzten; gero tximistargia arkitu zanean, krisalluak baztarreratu ta tximistargia etxeratu zutan.

"Urtzi" gogai oni olakorik garta ote dakioke? Ikusi egin bear zertarako sortua izan dan.

Jan naiak, bizi-bearrak, ez-jakiteak sortu ba'dute, jan nai ori, bizi-bear ori ase ondoren alperrik degu Urtzia, eta krisallua antzo baztarreratu dezakegu.

Adimenezko zergatiak sortu ba'dute, orde, adimenez jokatuaz, ba-dala luditik-at gizona eta ludia egin dituan norbait, eta gu orren mendeko gerala ba'datoz gizonak, orde, beste aldin bat duke uzkurtzak.

Ikus dezagun sorkunde garrantzitsu ori. Bi salletan bana genitzake gai oni buruzko iritziak.

ALDAKETA-ZALEENA.-Abereengandik dator gizona; urte ta eunki asko igaro dira gizona gizon izatera eldu arteraño. Abere baizik etzan lenen; geroago erdi-abere, erdi-gizon ta azkenik gizon. Azken sasoi ontakoa degu Urtzi gogaia.

Leen-gizonak etzezakean gogairik eratñ, eta Urtzi gegaia gutxiago:adimen-lan sakorik eskatzen baît'du gogai onek"Trnscendens" deritzaienetakoa degu,izan ere,gogai au.Lan eta oldozpen askoen ondoren irixteñ dira gizonak gogai oietara,eta ez edozein gizon;jakintsuenak eta ikasienak baizik;ez,beraz,lenen-gizonak.

Iritzi au sendotu nairik,jakintz-mallan atzera bizi diran eñiak aztertzera joanak ditugu aldaketa-zaleok,eta bai pozik biurtu ere:Urtzia billatu-bildur genitun eta ez dute arkitu; gogozkoa itsua baño itsuagorik ez bait'dago.

Ibillaldi oietatik,orde,usterik asko ekañi digute:gogo-zale(animista)zan batzuen ustez lenen-gizona;gizarte-zale,aztia,besteen iritzia,t.a.

EDESTI-ZALEENA.-"Urtzi"gogaiaren sorkunea edastiko gertagi bat da,bai,eta edesti-arauz aztertu beañ degu;ez nik zori artan egingo nuanagatik edo egingo ez nuanagatik.Ez,ori ez da edesti-irizpidea.Edestia azaltzerakoan,ez degu gauza bat nola egin zitekean edo egin ez zitekean jakin nai;egiz nola egiña izan zan baizik.

Era askotara pixtu daiteke sua,bakoitzian,alabaña,era batez bakañik pixten du nere amak:eriotz-mota asko izan zitzakean ene aitonazanak,baña bat bakaña izan zuan(eta aski).

Gizonak ere zergati askogatik sortu zezaketen uzkurtza,edestia zeañ,orde,zergati bategatik sortu zuten eta beste bategatik ez.Egizko zergati ori zein ote? Ori arkitu beañ ba.

Ortarako gaur bertan uzkurtza sortzen ari dan eñiaren zergatia ikustea litzake,noski, bidezkoen eta egokien:uzkurtza ta Urtzia aspaldikoak izanik,orde,lenen-eñietara jo beañ,bereietan uzkurtzak eta Urtziak zergatik dirauten ikusi eal dezagun. Iturburuago eta ura garbiago;bertagâ eta edesti -gertagia jakin eñezago.

Iritzi au bidezkogoa ez deritzaizu,irakurle?Bai noski.Ta zer dessigute lenen-eñi oiek?

Gaurkoz luze lijuakiguke,ta uñengoan eñi oiek barna ibillaldi bat egingo degu.

/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!/"!

# Lên-euskotaren UZKURTZA

Jakingaŕi ba-dogu gai au:euskotaŕon leen aldietako gauza geienetan letxe, baña, illunperik asko ba-dogu emen be.

Leen-aldietako aztarna bidez jakin aal daikegu zerbait. Bi bide dagoz: arkeoloji eta etnografi-bideak. Arkeolojian ba-doguz aztarna batzuk, gutxi be'dira ba: treana, aizto, aizkora, aitzur batzuk; besterik ez. Ortik ez daterkuke, beraz, argi aundirik. Gaurko siñeskeri ta esakuntzak, be, argi apuŕen bat ba-damoskue; gutxi onek be. Gaurdaño egin diran aztertzeak diñoskuena labur-labur emontxe dozue.

Gure antxiñeko euskotaŕek, Barandiaran'en eratxiz, uzkurtz bat baño geiago izan eben.

Orduko aztarnetatik bi aro edo aldi berezi daikeguz eusko-lantze (cultura) eta eusko-uzkurtzean: Paleolitos-aldikoa eta indoeuropaaŕena.

1-Abere idurisko jenio batzuk ziran Paleolitos-aroko euskotapren izaki goiteŕ edo jainko-izunak. Kisto'ren etoŕera baño 13.000, 8.000 ala 4.000 urte izango dauz aro oŕek. Etziran abereak, abere-antzeko izaki batzuk baño. Guztiok dakigunez, orduko gizonek aŕzulo izkutuenetan maŕazki (dibujo) batzuk egiten ebazan; an izaki batzuk bizi zirala uste izaten eban eta. Gaur be, ba-dago gureen artean siñeskera ori.

Geroko bizitzan, be, uste izan eben gure asabaok eta janariak imintzen eutsien ildakoei. Ildako guraso edo sendikoen gomuta arduraz aundiz gordeten eben. !Beti izan da euskotaŕa sendi maitale autsua! Oŕegaitixek iraun dau oinbeste gure abendak. Saŕitan jainkotxo, be, biurtzen ebezan ildako-gurasoek eta jainko lez otoi eta omenak egiten eutsian.

Ordukoxeak doguz beste ekandu ok: batogia eta argia imintzen eutsien ildakoei. Eta gaur ez? Oraindik, be, askok uste izaten daba geroko bizitzan argi egingo dautsiola-edo.

2- Geroagoko aldietan beste eři batzuk egin ziran Europa geienen jabe. Euskadi ez eben menperatu, baña urloiak inguruko ur garbia kutsutu egiten dau eta emengo gogo-lantzea, be, apur bat lausotu egin zan.

Aldi ortako uskurtza beste eřiek izan ebenaren antzeko dogu. Ba-dira, ordea, berezitasun batzuk.

Aldi ontako gizona izadi-naturaleza-zalea dogu. Aro ontako jainkotxo asko agiri dira Euskadi'n eta guztiak izaditik artuak: lañoak, eguzkia, illargia, eřekatxoak, ibaiak, zuaitzak t.a.. Guztion buru "Urtzi" zan; auda: zeru-urdiña, izartegia. Itz ori orain bost milla bat urte edo erabilten eban gure asabak. Gaurko "Jaungoiko" izena geroagokoa dogu. Gaur beste itz askotan agiri da izen oři: ortzegun(ostegun), ortziral(ostiral), ortzadařa (arco iris) t.a..

Izadiko indařak dira, beraz, aldi ontako jainkotxoak. Janzkia, jaki eta edergallu asko opalduten eutsiezen indar oiei. Sařitan jnazkiak eta sutera botatzen ebezen.

Geroko bizitza, be, uste eben. Augatik ildakoei jakiak eta iminten dautsez. Aldi ontan trikuařiak (dolmen) ziran illeři. Eusko-eřikoak berezitasun bat dabe: gañeko ařiak eřekatxo bat daukie. Abereak ilteb ebezen nunbait trikueři oien gañean. Eguzkitara begira dagoz, gañera, orduko trikuařiok eta txabolak, be, baia eguzkia, be, gurtzen eben nunbait.

Geroago Eřomatařek eusko-lantzea apuř bat lausotu eben. Eřomatařen aufetik idazkera berezi bat agiri da emen; baña ezin dabe ořen esan gurarik asmatu. Eřomatařen aldian, Napařoa eta Araba'n, batez be, jainkotxo oien izen asko agiri dira. Askotan eři-izenak dira eta eři-jainkotzat artzen ebezen: Baigoři t.a...Gipuzkoa'n ta Bizkaia'n gutxiago agiri dira. Araba'n 5 izen ezagutzen doguz. Gipuzkoa'n bat. Napařoa'n ugariago.

Oře or zelan eguan Euskadi Kisto ludira etoři zan aldian.

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

# Edesti

Historia.

## :-: Y a t s u ' t a r̃  M i k e l :-:

Yatsu'tar̃ Yon eta Azpilkueta'tar̃ Miren, ziran bere gurasoak. Xabier̃'ko gazteluan jaio zan eta gure Pantzeska Deunaren anai nagusia izan zan.

1515'gnean il yakon aita eta bera gelditu zan etxeko buru, amarekin batera. Yaungoiko zale eta napar̃ zale sutsua izan zan.

Zanetan, ereian odolari ondo erantzun eutson. Aldi artan iru gudate izan ziran Napar̃oa'n. Iruretan naparak galdu egin eben.

1512'gnean gaztelar̃en menpean gelditu zan eta 1516'gnean bideako bakaldunak eker̃i guran ibilli ziran, baña alper̃ik. Kepa Mariskala ortxen jausi zan eta kito! Cisnerosek agindu gogor̃ak emon euzan eta zati bateko ixildu biar̃a izan zan.

"Napar̃oa'n--Campión edestilari ospatsuak diñoanez--gaztelar̃ zale batzuen naia baño ezeben egiten agintariak". Gaztelako-legeak kalterik asko egiten eben eta bere gudariak, be, lapur̃etan baño ez eben egiten.

Onekin Npar̃oa geiena asar̃e egoan. Asar̃e au Duque de Nájera adierazten douaku aderto, Karla bakaldunari egin eutson idazki baten: "Leen Napar̃oa'n zure alde ebiltzanak, orain aldatuta aurkitu dodaz," diñotso,...Ar̃otsak bear̃ dogus napar̃ok menberatzeko, ba. Albret'tar̃en alde jaikiko dira auoko guztiak."

Onelantxe eguan Napar̃oa 1521'gnean. Urte ortan Iruña'ren jabe egin ziran gudari naparak, prantzetar̃ak lagun zirala. Mikel, be, ortxen dakusgu. Iñaki zan gaztelar̃en gudalburu rik jator̃ena. An zauritu ebenian, Iruña naparen eskuetan gelditu zan. Gero, baña, ostera be, gaztelatar̃en eskuetan jausi zan.

1522'gnean, Xabier̃'en ezer etzala egiten, eta Baztan aldera juan zan. Elizondo'n

ibilli zan gudari-apur batzukin.Napaŕoa'ganako zaletasun biziaz ebillan.

Gudalburu guztiak oŕelakoak izan ba'leuz Napaŕoa'k! Etzan oŕelakoa izan Aspaŕoz eta onegetik galdu zan guztia;baŕau,be,azkenean Noain'en jausi zan.

Amayuŕ'en...emen bai agertzeŕ yakula egizko abertzale eta gudalburu azkar lets. Ortxen egozan Npaŕoa'ko zintzoak,azken askatasun zaleak.Miranda zan gaztelar gudarien buru. Alde guztietatik inguratuta euken aŕesi a eta Mikel ebillan baŕuen gogor baño gogoŕago.200 gudaŕi eukazan eta bere ausardi eta zurtasunaŕen "Escipión" deitu eutsoen edestilari batzuk.

Ez eban goiz bateko gauza izan Miranda gudalburuak Npaŕoa'ko seme zintzook menberatzea.Gutxi ba'ziran,be,etziran makalak izan;Napaŕoa'gatik bizia emoteko,be,gartu egozan.Il arteraño ibilliko zirala zin egin eban.

Egun baten napaŕ gaizto batek esan eutson Miranda'ri;"ezta aŕitzekua zailtasun ori,baŕukuak napaŕak izanik."Atzera egitia lotsagaŕia zala-ta auŕera egin eban.

Egun baten pólvora meata(mina)bateri su emon eutsoen eta orma zati aundi batek luŕa jo eban.Ala be,gogoŕ iraun eban ondiño; baña "illeskoŕak izatea merezi eban "bizitz aiek guztiak galdu beaŕ zirala-ta azkenean bazak nakurtu eban.

Naguaienak Iruña'ko espetxean egon ziran luzaroan.Mikel'ek goiz baten iges egin eban emakume-jantzian,eta Ondaŕabi'n be,ibilli zan gero an egozan abertzalei lagun egiten.

Oŕelakoxea zan Amayur edo Maya'n ain gogoŕ ibilli zan Xabieŕ'taŕ Pantzezka'ren nuni an Indietan ibilli zan anai oŕen odol berua ba-erojan bere zanetan.

Amayuŕ...Maya...antxiñan Amaya... eŕi ortan izan beaŕ izoritxaŕeaz!napaŕ-askatasunaren amaya.!" (Iruŕalde y Suit).

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

# ARABA

# EVSKALDVN

Ez ditugu oraingozeak arabafok. Jainkoak daki eluf-maindiraak zenbat aldiz estali dituan oneskero oien gari-soroak.

Josu'k ifipartxorik egin baño makiña bat urtez lenago beren luforen jabe ziran. Ta euskaldunakmala ere. Orain bertan lufalde oiek euskel-izenez josita dakusguz beintzat eta... Euskal mintzoa arabaf oroen ezpañetan. Gaur olakorik ez beaf...

X'gn. gizaldian Araba'k euskaldun utsa ziraun oraindik; afoźzen naasterik gabe. Ordurako, ordea, gotafekin artuemanetan asia zan. Saleroeketan eta... ezkontz-kontuetan ere bai, noski.

711'gn. urte ingurutik Espain-aldean mairutafak ziran naguzi. Andik urte batzuetara, befiz, asturitafak gogofean asi zitzazkien.

Sinismen-alde ziardutela-ta, arabafak ere asturitafekin gogoz elkartu ziran. Sinismenari onik ezik, Euskerari gaitz egin zion seireun urteko elkarte uraxe.

Afotzen aurpegiak edo, goialderuntz urratu zuan gure ele au. Efioxa aldeko euskal-izenek X'gn. gizalditik dariote beintzat erdel-kutsua.

Elkar-gudak maiz-xamar izan oi zituzten; besarkatzeak ere bai, ordea. 1200'gn. urtean buruka bizian zebiltzan; 1332'gnean, befiz, betirako adixkidetuak.

Ordutik Euskeraren negar-jarioa.
Amil-bidean ořen antziñetik jaři ba'san ere, etzan ařas ondaturik beralekoan gelditu. XVll'gn. gisaldian 22 eřidi edo "Hermandad"etatik (52 siran guztiak) euskal-usoa etzan oraindik egatu. Gasteiz-aldean XVlll'gn. gisaldia jaiotzerakoan egin situan azken-egakadatxoak.

XVlll'gna degu, izan ere, danetan tamalgařien. Beko aldeko jauntxoek Araba-ibařetan ere ixuri zuten beren aundikeria.

Erdera ere iñoiz baño ařoxkoago agertu sitzaigun. Euskerak, beřia, (aundikeria muxukatzeko egiña ez izaki) lotsaren lotsez mendi-xokoetara jo beař. Negargařiagorik...!

Ordutik, dozenerdi uritan ez beste, euskal-krabeliñ-usairik ezta iñon ere aditzen.

Ařitzekoa da, baña. Amar gisaldietan ximeldu-beařean eta euskal-landarea oraindik tenk. Arabařen biotzetan ongi itsatsita egoki nunbait.

!-!-!-!-!-!-!-!-!-!-!

Gaztelařekiko artuemanak ez ezik, ba-dute apaiz erdeltzaleak ere ořurik. Eři-laguntzalle beařean, eři-ondatzaille izan dira apaizak...

Gauden gerora. Ametsa on da beti; geixko ezpa'da beintzat.

Emendik...(zenbat?) urteetara, Eřioxa-aldeko elizatxo batean. Apaiza pulpitoan izketarako gertu. Eřioxatařak, beřiz, begi ta belaři dagozkio..."Aitaren eta Semearen...Ene biotzeko aditzalleok..."Zer!?..."Aldi artan..."Zer da ori!?...Eřioxa'n eta Euskeraz !? Apaizak gañera!?... Aundiagoak ikusteko jaio giñan. Etorkizuna ez al da, ba, gazteona? Apaiz eta apaizgai gazteok, beřiz, Euskerak gauzka. Euskerarena da, beraz, etorkizuna.

Bitartean lanari ekin beař, ordea... Pozik, alabere...

!-!-!-!-!-!-!-!-!-!-!

(°)(°)(°)(°)(°)(°)(°)(°)(°)(°)(°)(°)(°)(°)

# Atoz mendira!

-1-

Euzki-izpi dirditsubak
maite mendiyak:
goizen lenen musuba
afatsian agufa;
ez ote gura
Euzkik mendi gozua?

-2-

Ufun itzalak gabaz
zugan dabiltzaz:
zidafezko argiya
urduri mendiyan
zugaitz ganian
!Maitale illargiya!

-3-

Txoriyak ameslari
bai ta abeslari.
Txindof baten abotsak
diño asian:
Mendi-ganian
daukot nere bizitza

-4-

Mitxeletak jostari
zuri ta gofi.
Erletxuak loretan
ezti billari:
mendian pozgafi
oneitxek, bai, benetan.

-5-

Ardi-aldra andiak
baltz ta zuriak
ortxen dagoz bazkatzen..
Bedar goxuak
ta eztitsuak
bai mendian billatzen.

-6-

Eusko-mendi maitiak
edef-jantziyak...
Jauregin edefkuna
ez yat atsegin
aurea bezin
begin edef kutuna.

-7-

Zelai aize legunak
abots sorgiñak
abesten ari dira
goiz afatsian
oro batian:
" Atoz, otoi, mendira ! "

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&_"&